

6. GAIA: EKITALDIKO EMAITZAREN KALKULUA

6.1 ZERGA AURREKO MOZKINA ETA EKITALDIKO EMAITZA

Merkataritza sozietateak pertsona fisikoak bezala zergapetuta daude, hau da, beren jardueratik lortutako errenten portzentaia bat Ogasun Publikoari eman behar diote zergaren kontzeptuagatik.

Banako enpresariak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena (PFEZ, gazteleraz IRPF) egin behar dute eta sozietateek, aldiz, Sozietateen gaineko Zergaren aitortpena (SZ, gazteleraz IS).

Oharra:

- Helbide soziala Bizkaian, Araban edo Gipuzkoan daukaten eta jardueren gehiengo bertatik burutzen duten sozietateei, lekuan lekuko *Foru Araua* aplikatuko zaie.
- Gainerako enpresei, estatuan aplikatzen den Sozietateen gaineko Zergaren Legea.

Kontabilitate Plan Orokorrak, emaitza, zerga ondorengo aldagai bezala definitzen du. Horrela, erregularizaziotik lortzen den kontabilitate-emaitzari azken doikuntza bat egin behar zaio: zergaren gastuarena, (630) *Mozkinen gaineko zerga*. Ondorioz:

$$\begin{aligned} \text{Zerga Aurreko Emaitza} &= \text{sarrerak} - \text{gastuak} \\ \text{Emaitza garbia} &= \text{ZAEm} - \text{Mozkinen gaineko Zerga} \end{aligned}$$

Ekitaldi itxieran, zergaren sortzapena islatzeko idazpen orokorra (zerga gastu positiboa ateratzen denean) hau izango da:

Zenbatekoa	Zor	Data	Hartzeko	Zenbatekoa
	(630) Mozk. Gaineko Zerga	Zergaren sortzapenean	(4752) OP sozietateen gaineko zergagatik hartzekodun	
	(129) Ekitaldiko emaitzak	Gastuaren erregistroan	(630) Mozk. Gaineko Zerga	

Adibidea:

- Sarrerak = 50.000€ eta Gastuak = 40.000€
- Zerga Tasa = %30

Eskatzen da:

1. Kalkulatu ekitaldiko emaitza bai zerga aurretik bai zerga ondoren.
2. Kontabilizatu eragiketak.

Galdu-Irabazien Orrian, lehenengo eta behin, ekitaldiko *Jarduera Jarraikorretatik* lortutako emaitza aurkezten da; ondoren, zergaren; eta azken atal bezala, *Eten diren Jardueretatik* lortutako emaitza, baina zergatik garbi zuzenean. Horrela:

GALDU-IRABAZI ORRIA	
	Zenbatekoa
A) Eragiketa Jarraituak A.1) USTIAPENeko EMAITZA A.2) EMAITZA FINANTZARIOA A.3) ZERGA AURREKO EMAITZA (A.1+A.2) (630) Mozkinen gaineko zerga A.4) ERAGIKETA JARRAITUEN EKIT EMAITZA (A.3+/-Zerga)	
B) Etendako Eragiketak Ekitaldian etendako eragiketetatik sortutako emaitza, zergarik gabe	
A.5) EKITALDIKO EMAITZA: (A.4 + B)	

Zerga Aurreko Emaitza ez da beti positiboa izaten, eta ondorioz, mozkinen gaineko zerga negatiboa (sarrera) ere izan daiteke. Honen arrazoiak aurrerago aztertuko ditugu.

Adibidea:

- a) ZAE= 10 m.u. eta Zerga Gastua 2 m.u.
- b) ZAE= 10 m.u. eta Zerga Gastua (3) m.u.
- c) ZAE= (10) m.u. eta Zerga Gastua 2 m.u.
- d) ZAE= (10) m.u. eta Zerga Gastua (3) m.u.

Azaldu nola islatuko diren aurreko datuak Galdu-Irabazien Orrian.

Ogasun Publikoari ordaindu beharreko kuotak direla eta, hauek ez dira zergaren berdinak izan behar, irizpide fiskalak eta kontabilitatekoak askotan ez direlako bat etortzen gastuen eta sarreraren izaeran. Hau gertatzen denean:

- Zergatik ordaindu beharrekoa irizpide fiskalak jarraituz (Sozietateen gaineko Zergaren Araudiak adierazitakoa) kalkulatu da eta (4752) *OP sozietateen gaineko zergatik hartzekodun* kontuan kontabilizatuko da.
- Zergaren gastua, kontabilitate irizpideak jarraituz (kontabilitate arauak eta printzipioak jarraituz) kalkulatu da eta (630) kontuan kontabilizatuko da.
- Ordaindu beharreko zergaren eta zerga gastuaren arteko diferentziak, *sarrera konputagarriak* eta *gastu kengarriak* izango dira, eta ondorioz, *zamatuko diren errentak (Oinarri Zergagarria)* definitzen dira.

zerga gastua \neq ordaintzeko kuota

6.2 KONTABILITATE-EMAITZAREN ETA EMAITZA-FISKALAREN ARTEKO DIFERENTZIA

ZERGA-GASTUaren kalkulua, KPOren 3. ataleko 13. balioespen araua jarraituz egingo da, hau da:

KONTABILITATE-TAULA	
Zerga Aurreko Emaizta	
+/- Dif. Iraunkorrek	
= Kontabilitate-emaizta Doitua	
x Zerga tasa	
= Zerga osoa	
-Kenkariak eta hobariak	
Dibidenduagatik zergatze bikoitza	
Nazioarteko zergatze bikoitza	
Hobariak	
Inbertsioak eta enplegua sortzea	
= Zergagatik gastua (positiboa edo negatiboa) →	(630) Mozk g. Zerga → zordundu edo abonatu

Ogasun Publikoari ORDAINTZEKO KUOTA, aldiz, era honetara kalkulatu da:

TAULA-FISKALA	
Kontabilitate-emaizta	ZAE _m
+/- Dif. Iraunkorrek	+/- D. iraunk.
+/- Denborazko diferentziak	+/- Denb dif.
= Emaizta-Fiskala	= EF
- Aurreko OZ negatiboak	- OZ neg.
= Oinarri Zergagarria	= OZ
x Zerga tasa	x z/t
= Kuota Gordina	= KG
- Kenkariak	-kenk.
= Kuota Likidoa	= KL
- Atxikipenak eta konturako ordainketak	- atx.
= Kuota Diferentziala	= KD → (4752) edo (4709)

Aurreko tauletan ikusten denez, ZERGA GASTUA kalkulatzeko, araudi fiskalaren ondorioz, bi elementu sartu ditugu:

- **Diferentzia Iraunkorrek**: zerga aurreko kontabilitate-emaiztaren eta oinarri zergagarriaren artean sortutakoak eta ondorengo ekitaldietan eragiten ez dutenak (behin betikoak). Adibidez: isunak edo guztiz salbuetsita dauden irabaziak/sarrerak. Oinarri Zergagarria osatzeko sarreretan eta gastuetan irizpen desberdina egon daitekeen neurrian, etorkizunean zerga-eraginik izango ez badu, gertatzen diren ekitaldian zerga gehiago edo gutxiago ordaintzea suposatuko dute baina ez dute idazpenenean bestelako doikuntzarik eragiten.
- **Kenkariak**: Ogasun Publikoak jarduera edo ekintza berezi batengatik (enplegua sortu, ...) abantaila fiskal bat ematen duenean. Printzipioz, fiskalki aplikagarria den ekitaldiko zerga-gastu txikiagoa suposatuko du. Kenkariak ere, ez dute beste doikuntzarik eragiten.

Bestalde, aurreko taulak aztertuz, agertzen diren ezberdintasunak hauek izango dira (6.3 atalean landuko ditugu):

- Atxikipenak eta konturako ordainketak
- Diferentzia iragankorrak
- Kontentsatzeko Oinarri zergagarri Negatiboak

6.3 MOZKINEN GAINKO ZERGAREN KONTABILIZAZIOA

Kontabilitate Plan Orokorrak, Sozietateen gaineko Zergaren kalkulua, kontabilitate-emaitzatik hasiz kalkulatzen du, eta ordaindu beharreko zergaren eta zerga gastuaren arteko diferentzia Aktibo eta Pasiboen balioespenean (irizpide fiskalak eta kontabilitate irizpideak ezberdinak diren heinean) egongo da.

Era honetan, eta informazio gehiago ematearen helburuarekin (630) *Mozkinen gaineko Zerga* gastua bi kontutan banatuko da:

$$(630) \text{ Mozk g/z} = (6300) \text{ Mozk g/z korrientea} + (6301) \text{ Mozk g/z geroratua}$$

6.3.1 Uneko Zerga edo Zerga korrientea

Enpresak, mozkinen gaineko zergaren likidazioa fiskalaren ondorioz, ekitaldi batean ORDAINTZEN DUEN ZENBATEKOA da. Kuota LIKIDOAREN berdina izango da.

Bere balioespena, ekitaldi itxieran indarrean dagoen legeria aplikatuz ordainduko/itzuliko den zenbatekoa izango da, *zerga korrienteagatik aktiboak edo pasiboak* sortuko direlarik.

Era honetan, lehenengo Ogasun Publikoari ordaintzeko kuota kalkulatuko dugu, eta ondoren, zenbateko horretan oinarrituta, zerga gastua islatuko, egin beharreko doikuntza guztiekin.

6.3.1.1. Atxikipenak eta konturako ordainketak

Sozietateek ekitaldian kapital higigarriengatik zein beste kontzepturen bategatik sarrerak lortzen badituzte, sarreren atxikipenak aplikatzen zaizkie zergaren kontura, Ogasun Publikoari zenbateko batzuk aurreratuz. Atxikipen hauek (hau da, Ogasunari aurrez ordaindu dioten zerga), ogasunari ordaintzen zaion kuota kalkulatzen denean kontentsatu egiten dira ordaintzeko geratzen den kantitatea txikiagoa izanik; edo, hala balegokio, diferentziagatik Ogasun Publikoak itzuli egin beharko dizkio enpresari.

Zenbatekoa	Zor	Data	Hartzeko	Zenbatekoa
Zerga Gastua	(630) Mozk. Gaineko Zerga		(473) OP, atxikipenak eta konturako ordainketak (4752) OP OP sozietateen gaineko zergagatik hartzekodun	(473)= OPak atxiki duena (4752)= Oraindik ordaintzeko falta dena
Zerga Gastua (4709)= OPak itzuli behar duena	(630) Mozk. Gaineko Zerga (4709) OP zerga itzulketagatik zordun		(473) OP, atxikipenak eta konturako ordainketak	(473)= OPak atxiki duena

6.3.1.2 Diferentzia iraunkorrak

Diferentzia hauek bi kalkuluetan daukate eragina: Zerga gastuan (kontabilitate irizpideetan oinarritua) eta ordaindu beharreko zergan (irizpide fiskaletan oinarritua). Era honetan, ez dute inolako kontabilitate idazpenik eragingo.

Adibidea (Diferentzia iraunkorrak eta atxikipenak):

GOIKO, SA enpresak 20X0 ekitaldi bukaeran 20.000.000 m.u.ko mozkina lortu du zerga aurretik. Sozietateen gaineko zergari buruz informazio hau ezagutzen da:

- Kontabilitate-emaiztan, isun batek eragindako 25.000 m.u.ko gastua barneratzen da.
- Ibilgetuko elementu bat saldu egin da eta lortutako mozkina, 5.000.000 m.u.koa izan da. Sarrera hau guztiz salbuetsita dago Ogasun Publikoren araudian.
- 20X0 ekitaldian izandako Atxikipenak eta konturako ordainketak 8.750 m. u. koak izan dira.
- Zerga tasa: %30

Kalkulatu zerga gastua eta ogasunari ordaindu beharreko zerga.

Adibidea (Diferentzia iraunkorrak, kenkariak eta atxikipenak):

XXX Sozietateak ondorengo informazioa aurkezten du bere sozietateen gaineko zergaren aitorpenerako:

- Zerga aurreko kontabilitate-emaizta: 10.000 m.u.
- Zerga-tasa: %30
- Kontabilitatean, 100 u.m.ko isuna agertzen da
- 20X0 ekitaldian kenkariak eta hobariak: 170 m. u.
- 20X0 ekitaldian izandako atxikipenak eta konturako ordainketak: 1.000 m.u.

Kalkulatu zerga gastua eta ogasunari ordaindu beharreko zerga.

6.3.2 Zerga geroratua

Kontabilitatearen eta fiskalitatearen helburuak desberdinak direnez, bakoitzak onartzen duen "emaizta" ez da beti bera izango, ezta bakoitzak onartzen duen elementu bakoitzaren balioespena ere. Egoera honek etorkizunean zerga-ondorioak izan ditzake, batzuetan epe bat igaro ondoren guztiz konpentsatuko direlarik. Adibidez, ibilgetuko elementu baten amortizazioan erritmo desberdinak aplikatzen direnean.

Balantzeko elementuen kontabilitate-balioespenaren eta balioespen-fiskalaren artean desberdintasunak daudenean, etorkizunean zerga-ondorioak suertatuko dira, eragina (474) Zerga geroratuen ondoriozko **aktiboak** eta (479) Denb. Dif. Zerg. ondoriozko **pasiboak** kontuetan adieraziz.

Kontu hauek (geroratutako zergagatik aktiboak eta pasiboak) kontabilitate kontzeptuak dira, ez fiskalak, eta ez dira zuzenean ordaintzen edo kobratzen, bajaran eman baizik, gastu kontuaren kontra egiten da.

6.3.2.1 Denborazko diferentziak

Aktiboen, pasiboen eta zenbait ondare-tresnen balioespen kontable eta fiskal desberdinagatik sortzen dira, etorkizuneko zerga-zaman eragina izanik.

“Balioespen Fiskala”, indarrean dagoen arautegi fiskalarekin bat etorrira, ondare elementuei atxikitzen zaien zenbatekoa da.

Kasu desberdinak ager badaitezke ere (Ondare Garbira zuzenean doazen gastu eta sarrerengatik, etab.), arruntena baino ez dugu aztertuko:

Diferentzia IRAGANKORRAK: Oinarri Zergagarriaren eta Zerga Aurreko Emaitzaren artean sortutakoa da; jatorria egotzi behar diren ekitaldian dute (kontabilitatea eta fiskalitatean ezberdina izateagatik) eta hurrengo ekitaldietan konpentsatuz joango dira.

Kalkulu Fiskalean baino ez direnez sartzen, ordaintzeko kuota likidoa eta zerga-gastuaren arteko diferentziagatik aktiboak edo pasiboak sortaraziko dituzte:

- (4740) *Denborazko Diferentzia kengarrien ondoriozko aktiboa*
- (479) *Denb. Dif. Zergagarrien ondoriozko pasiboa*

Diferentzia bakoitzaren eragina zerga tasarekin biderkatuz kalkulatu da eta aipatutako kontuetan islatu. Informazio osoa emateko, ez dira batzuk besteekin konpentsatuko (bakoitza banaka kontabilizatu behar da).

Adibidea (deborazko diferentziak):

Sozietate batek 20X5 ekitaldian lortu duen zerga aurreko emaitza 5.000 m.u. izan da. 20X1 ekitaldi hasieran, enpresak 1.000 m.u.ko aktibo amortizagarria eskuratu zuen; estimatzen zen bizitza erabilgarria 2 urte. Ogasunak eskuratzeko-prezioaren %20 amortizatzea onartzen du (5 urtetan amortizatzea).

Hobari eta kenkariak: 500 m.u.

Atxikipenak eta konturako ordainketak: 500 m.u.

Zerga-tasa: %30

Kalkulatu zerga gastua eta ogasunari ordaindu beharreko zerga 20X1etik 20X5era.

Adibidea (deborazko diferentziak):

Sozietate batek 20X5 ekitaldian lortu duen zerga aurreko emaitza 1.000 m.u. izan da. 20X1 ekitaldi hasieran, enpresak 1.000 m.u.ko aktibo amortizagarria eskuratu zuen; estimatzen zen bizitza erabilgarria 5 urte. Ogasunak eskuratzeko-prezioaren %50 amortizatzea onartzen du (2 urtetan, irizpide bizkorra).

Hobari eta kenkariak: 500 m.u.

Atxikipenak eta konturako ordainketak: 500 m.u.

Zerga-tasa: %30

Kalkulatu zerga gastua eta ogasunari ordaindu beharreko zerga 20X1etik 20X5era.

Adibidea (diferentzia iragankorren adibidea):

“ERDIKO, SA” enpresak 20X10 ekitaldi itxieran 20.000.000 m.u.ko mozkinak lortu du zerga aurretik. Sozietateen gaineko zergari dagokionez, informazio hau erakusten du:

- 20X10 ekitaldia hasieran 1.000.000 m.u. tan Makina bat eskuratu du, urtero 100.000 m.u. amortizatuz. Hala ere, ibilgetuaren baldintza bereziak direla eta, ogasunak lehenengo urtean osorik amortizatzeke aukera ematen du.
- 20x10 ekitaldian Inbertsioagatik kenkariak: 1.300.000 m.u.
- Atxikipenak eta konturako ordainketak: 180.000 m.u.
- Zerga tasa: %30.

20x10erako eskatzen da:

- a) Kalkulatu zerga gastua eta ogasunari ordaindu beharreko zerga 20X10ean.
- b) Amortizazio gastuak suposatzen duen diferentzia zergaren ondorioetarako erakusten duen ondorengo taula osatu:

<u>Urtea</u>	<u>Kont Gtu</u>	<u>Itxieran akt KB</u>	<u>Gtu Fiskala</u>	<u>Akt BF</u>	<u>Denb dif</u>	<u>Denb dif aldak</u>	<u>Balantzean</u>	<u>Idazp</u>
1								
2								
--								
10								

JARRAIPENA Adibidea (diferentzia iragankorren adibidea):

“ERDIKO, SA” enpresak 20X11 ekitaldi itxieran 23.000.000 m.u.ko mozkinak lortu du zerga aurretik. Sozietateen gaineko zergari dagokionez, 20X10 ekitaldiko makinaz gain ez dauka beste diferentziarik.

- 20X11 ekitaldian Inbertsioagatik kenkariak: 1.100.000 m.u.
- Atxikipenak eta konturako ordainketak: 2.570.000 m.u.
- Zerga tasa: %30.

Kalkulatu zerga gastua eta ogasunari ordaindu beharreko zerga 20X11an.

Denborazko diferentziak sortarazten dituzten beste zenbait adibide:

- Ibilgetuko elementu baten salmentan lortutako mozkina fiskalki gutxitu egiten da, inflazioaren eragina zuzentzeko koefiziente bat aplikatzen zaionean.

Adibidea:

Eraikuntza = 5.000.000 €

Am. Metatua = 4.500.000 €

Salmenta prezioa = 25.000.000 €

Suposatu fiskalki mozkina 23.000.000 €tan uzten dela → **Diferentzia iraunkor negatiboa**

- Erantzukizunetarako hornidurari zuzkidura ez da izango kengarria ordainketa gertatu arte.

Adibidea:

Sozietate batek aurren (20X0) 100.000 ko gastua kontabilizatu du epaiketaren emaitzaren arabera egin dezakeen ordainketa batengatik. Oraindik sententzia ez da ezagutzen.

Bi urte geroago (20X2), epaiketaren emaitza ezagutu da eta sozietateak 100.000 m.u. ordaindu behar ditu kalte-ordainen ondorioz.

Kalkulatu zerga gastua eta ogasunari ordaindu beharreko zerga 20X0, 20X1 eta 20X2 ekitaldietan.

Diferentzien adibideak:

	Positiboak	Negatiboak
<i>Iraunkorrak</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Isunak eta zigorrak • Bezeroen arretarako gastuak • Dohaintzak 	<ul style="list-style-type: none"> • Plusbalioa berrinbertsioagatik guztiz salbuetsita balego (kasu batzuetan)
	Kengarriak	Zergagarriak
<i>Denborazko diferentzia iragankorrak</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Amort. eta balio-narriadura gehiegizkoak (adibidez kaudimengabeziatarako) • Kengarria ez den Hornidurari zuzkidura (adib. erantzukizunetarako) 	<ul style="list-style-type: none"> • Amortizazio askatasuna

6.3.2.2. Galeren konpentsazioa

Zergaren eraginetarako, ekitaldi batean lortutako galerak etorkizuneko mozkinen aitortpenean konpentsatu ahal izango dira ekitaldi horretan zerga gutxiago ordainduz. Etorkizunean, beti ere legeak zehazten duen gehieneko epean, konpentsatu ahal izango da (Bizkaian 15 urte), eta konpentsatzen den ekitaldi bakoitzeko Emaitza Fiskal positiboaren mugan. Hau da, ezin da konpentsatu ekitaldian daukagun Emaitza fiskala (positiboa) baino gehiago.

Kontabilitatean, ordea, ekitaldi bakoitzean lortutako emaitzak ez dauka beste ekitaldietako emaitzekin inolako loturarik.

Oinarri Zergagarria negatiboa balitz, ekitaldiko zerga korrientea = ordaintzeko kuota = 0 izango da, eta horrez gain, **Ogasun Publikoaren aurkako kreditua (aktiboa) sortuko da** mozkinaren gaineko zerga-geroratua abonatuz.

$$\text{Kreditu fiskala (aktiboa)} = \text{Aurtengo OZ Negatiboa} \times \text{Zerga tasa}$$

Kontabilitatean egingo liratekeen doikuntza-idazpenak hauek dira:

1- Ogasun Publikoaren aurkako *kreditua* (aktiboa) sortzean:

Zenbatekoa	Zor	Xi	Hartzeko	Zenbatekoa
	(4745) Ekitaldiko galerak konpentsatzeko Kred		(6301) Mozk. g/z geroratua	

Erregularizazioan:

Zenbatekoa	Zor	Xi	Hartzeko	Zenbatekoa
	(6301) Mozk. g/z geroratua		((129) Ekitaldiko emaitzak	

2- Geroago, OZ Negatiboa konpentsatzean:

Zenbatekoa	Zor	Xii	Hartzeko	Zenbatekoa
	(6301) Mozk. g/z geroratua		(4745) Ekitaldiko galerak konpentsatzeko Kred	

Ekitaldiko zergagatik:

Zenbatekoa	Zor	Xii	Hartzeko	Zenbatekoa
	(6300) Mozk. g/z korrientea		(473) OP atxikipeanek (4752) OP sozietateen gaineko zergagatik hartzekodun	

Erregularizazioan:

Zenbatekoa	Zor	Xi	Hartzeko	Zenbatekoa
	(129) Ekitaldiko emaitzak		(6301) Mozk. g/z geroratua 6300) Mozk. g/z korrientea	

Adibidea:

BEHEKO, SA enpresak ekitaldi ekonomiko itxieran 100.000 m.u. Oinarri Zergagarri Negatiboa lortu du (Kontabilitate-emaitza doituaren berdina).

Ekitaldian jasandako atxikipeanek eta konturako ordainketak: 250 m. u.

Zerga-tasa: %30

Hurrengo ekitaldian, BEHEKO, SA-k 150.000. m.u.tako Zerga Aurreko Mozkina lortu du.

Kaudimengabeziak direla eta, aurtien fiskalki kengarria ez den 5.000 m.u.ko gastua kontabilizatu du (balio narriadura galera).

Enpresak aurreko oinarri zergagarri negatiboa osorik edo, ahal duen neurrian behintzat, konpentsatuko du.

Ekitaldian jasandako atxikipeanek eta konturako ordainketak: 375 m.u.

Kalkulatu zerga gastua eta ogasunari ordaindu beharreko zerga bi ekitaldietan, eragiketarik kontabilizatuz.

Adibidea:

20X0 ekitaldiko zerga aurreko kontabilitate-emaiza: (1.000) u.m.

20X1 ekitaldiko zerga aurreko kontabilitate-emaiza: 1.500 u.m

Bi urte hauetan ez dago inolako diferentziarik, ez iraunkorrik ezta iragankorrik ere.

Zerga-tasa %30.

Bi ekitaldietan jasandako atxikipenak eta konturako ordainketak: 50 u.m.

Kalkulatu zerga gastua eta ogasunari ordaindu beharreko zerga bi ekitaldietan, eragiketak kontabilizatu.

6.3.2.3 Kenkariengatik eskubidea

Kenkaria aplikatzeko eskubidea lortzen denean baina ordaintzeko kuota txikiegia izateagatik fiskalki aplikatu ezingo balitz, zerga-gastua dagokion kopuruan murriztu eta aplikatzeke dauden kenkariengatik eskubidea sortuko da.

Kontabilitatean egingo liratekeen doikuntza-idazpenak hauek dira:

1- Eskubidea sortzean:

Zenbatekoa	Zor	Xi	Hartzeko	Zenbatekoa
	(4742) Oraindik aplikatu gabeko kenkarien eta hobarien ondoriozko eskubideak		(6301) Mozk. g/z geroratua	

Erregularizazioan:

Zenbatekoa	Zor	Xi	Hartzeko	Zenbatekoa
	(6301) Mozk. g/z geroratua		(129) Ekitaldiko emaitzak	

2- Geroago, kenkariak benetan aplikatzen diren ekitaldian

Zenbatekoa	Zor	Xii	Hartzeko	Zenbatekoa
	(6301) Mozk. g/z geroratua		(4742) Oraindik aplikatu gabeko kenkarien eta hobarien ondoriozko eskubideak	

Ekitaldiko zergagatik:

Zenbatekoa	Zor	Xii	Hartzeko	Zenbatekoa
	(6300) Mozk. g/z korrientea		(4752) OP sozietateen gaineko zergagatik hartzekodun	

Ondorengo taulan, orain arte azaldutako diferentzien laburpena aurkezten da:

Taula fiskalean “desberdintasunak” (Erregularizaziotik kalkulaturako ZAM eta aurtengo OZ desberdin egiten dutenak) (+) Aurten zerga gutxiago ordainduko dugu (-) Aurten zerga gehiago ordainduko dugu	Azalpena	Adibidea	Zerga gastua kalkulatzeko sartzen da?	Idazpenetan islatzen da? beti ere (6301) kontuaren kontra
Diferentzia iraunkorrak (behin betiko direnak)	Fiskal eta kontabilitate irizpen desberdinagatik	Isuna: Kontabilitate gastua bai, baina Gastu Fiskala ez → Dif (+)	Bai	Ez
Diferentzia iragankorrak (behin behinekoak)	Etorkizunean eragina duten neurrian (konpentsatuko direnak) Orain (+), gero (-) Orain (-), gero (+)	Kaudimengabeziengatik kredituen narriadura-gastua: Kontabilitate gastua bai baina ez da Gastu Fiskala Ogasunak zehaztutako epea igaro arte → Orain (+), gero (-)	Ez	Bai (=Dif x t) (4740)A edo (4749)P zordundu edo abonatu
Aurreko OZ negatiboen konpentsazioa	Lehenagoko ekitaldi batean edo gehiagotan lortutako OZ negatiboengatik kreditu fiskala (A) islatuta badaukagu, aurten konpentsa dezakegun OZ negatibo horien zenbatekoa		Ez	Bai (=Konp OZ neg x t) (4745)A zordundu edo abonatu
Kenkariak (fiskalki aplikatu ezin badira)			Bai	(4742) A zordundu

Adibidea:

20X0 ekitaldiko zerga aurreko kontabilitate-emaiza: (1.000) u.m.

20X1 ekitaldiko zerga aurreko kontabilitate-emaiza: 1.500 u.m

Bi urte hauetan ez dago inolako diferentziarik, ez iraunkorrik ezta iragankorrik ere.

Zerga-tasa %30.

Bi ekitaldietan jasandako atxikipenak eta konturako ordainketak: 50 u.m.

20X0Ekitaldian jasandako kenkariak: 50 u.m.

Kalkulatu zerga gastua eta ogasunari ordaindu beharreko zerga bi ekitaldietan, eragiketarako kontabilizatuz.

6.3.3 Zerga geroratuagatik aktibo eta pasiboetara zuzentzeko

Ekitaldiaren itxieran, enpresak "Zerga geroratuagatik aktiboak" berrikusi beharko ditu, bai horiei buruzko zalantzarik dagoenean baja emateko, bai aurretik islatu ez badira bere gauzatzean zalantzarik ez dagoen neurrian orain islatzeko.

Horrela, (474) Zerga geroratuen ondoriozko aktiboak kontuak baxan emateko (633) Doikuntza negatiboak mozkinen gaineko zergapenean kontua erabiliko da.

Era berean, legeriaren edo egoera ekonomikoaren aldaketak zergagatik kreditu edo pasiboen aldaketa dakarrenean, beharrezko doikuntzak egingo dira (633) Doikuntza negatiboak ala (638) Doikuntza positiboak kontuak erabiliz.

Zenbatekoa	Zor	Xi	Hartzeko	Zenbatekoa
	(633) Doikuntza Negatiboak...		(4740) (4742) edo (4745) (479)	

Edo:

Zenbatekoa	Zor	Xi	Hartzeko	Zenbatekoa
	(4740) (4742) edo (4745) (479)		(638) Doikuntza Positiboak...	

(633) Doikuntza negatiboak zein (638) Doikuntza positiboak kontuek, erregularizazioan lortzen den kontabilitate-emaitza gordina aldaratzen dute baina fiskalki ez dira gastu kengarriak ez sarrera onargarriak ere. Beraz, zerga Aurreko emaitzatik hasten den taulan, hauen eragina kentzeko helburuarekin, diferentzia iraunkor positibo eta diferentzia iraunkor negatibo bezala sartu behar ditugu, hurrenez hurren.

Adibidea:

Aktiboko kontuen artean diferentzia kengarriengatik 600 m.u.ko saldoa dauka DURANGO, SA enpresak.

Aurten, Mozkinen gaineko zergapenean Bizkaiko Foru Araua aplikatu behar du eta zerga tasa %30 izan beharrean %28 da.

Eskatzen da:

- Zein doikuntza burutzen du erregularizazioaren eta zergaren aitortzearen aurretik?
- Zein izan zen 600 m.u.ko kreditua sorrarazi zuen diferentzia positiboa?
- Zein izango da diferentzia haren konpentsazioa oraingo baldintzen arabera?
- Zein da kontabilitatean egin beharreko doikuntza egoera berria islatzeko?
- Zein da doikuntzaren eragina ekitaldiko emaitza gordinean (zerga aurreko emaitza)?
- Zein da doikuntzaren eragina zergaren aitortze berrian?

Adibidea:

Aktiboko kontuen artean diferentzia kengarriengatik 840 m.u.ko saldoa dauka BERMEO, SA enpresak.

Aurten, Mozkinen gaineko zergapenean Bizkaiko Foru Araua aplikatu behar du eta zerga tasa %30 izan beharrean %28 da.

Eskatzen da:

- Zein doikuntza burutzen du erregularizazioaren eta zergaren aitortenaren aurretik?
- Zein izan zen 600 m.u.ko kreditua sorrarazi zuen diferentzia positiboa?
- Zein izango da diferentzia haren konpentsazioa oraingo baldintzen arabera?
- Zein da kontabilitatean egin beharreko doikuntza egoera berria islatzeko?
- Zein da doikuntzaren eragina ekitaldiko emaitza gordinean (zerga aurreko emaitza)?
- Zein da doikuntzaren eragina zergaren aitorten berrian?

Adibidea (geroratutako aktibo eta pasiboen aldaketak):

Enpresa baten balantzean ondorengo elementuak azaltzen dira (20X0 ekitaldian):

Galerengatik konpentsatzeko kredituak	300€
Denborazko dif. kengarriengatik aktiboak	3.000€
Denborazko dif. ezargarriengatik pasiboak	3.600€

- a) Ekonomiaren bilakaera aztertuta, enpresak ezin du bermatu, etorkizunean aurreko ekitaldietako galera guztiak konpentsatzeko irabaziak lortzeko gai izango denik.
- b) 20X1 ekitaldian, zerga-tasa %30tik %25era murrizten da.

Eskatzen da: 20X0 eta 20X1 ekitaldietako idazpenak.